

ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Arabako Artium Fundazioa

IFK

G01315530

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Kultura-erakunde bat da, eta 2001eko otsailaren 16an eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioa eratzea erabaki zuen Arabako Foru Aldundiak, sortzaile bakarra denak, [Diputatu Kontseiluaren azaroaren 14ko 112/2000 Foru Dekretua betez](#). Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, "[Arabako Artium Fundazioa](#)" EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko apirilaren 30eko Agindua betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

9102 Museo-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren xedea hau da:

- Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoa, Artium, kudeatzea eta zuzentzea.
- Bere ondarea osatzen duten eta balio kulturala duten ondasun higigarriak edo higiezinak mantentzea, zaintzea, babestea eta zaharberritzea.
- Arte plastikoen gizarte-komunikazioa sustatzea.
- Bildumak behar bezala behatzeko eta aztertzeko moduan erakustea, eta ikasketa- eta ikerketa-lanak erraztea eta bultzatzea.
- Artium Zentro Museoa dagoen ondareko lanak eta nortasun kulturala ezagutaraztea eta hedatzea.
- Ikerketa-programak garatzea eta museologiaren arloko prestakuntza- eta hobekuntza-planetan parte hartzea.
- Lankidetzak eta elkarlan-harremanak ezartzea museoak kudeatzen dituzten beste Fundazio edo erakundeekin, Unibertsitatearekin, ikerketa-zentroekin eta estatuko edo atzerriko erakunde kulturalekin.
- Elkarrekin egiteko lanak garatzea aurreko atalean aipatutako erakundeekin.
- Bestelako jarduera osagarrien bidez sustatzea edo egitea manifestazio kulturalak, hitzaldiak, liburuen edizioak, katalogoak eta argitalpenak, laguntzak ematea eta antzeko beste edozein jarduera, baldin eta bateragarriak badira fundazioaren helburuekin.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Eskualde Administrazio Herri Administrazioak.

Fundazio-zuzkidura


180.304 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Arabako Foru Aldundiak ipini zuen Gizarte Funts osoa, fundazioa eratzeko ekitaldian.

Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
Arabako Foru Aldundia	5/13
EAEko Administrazio Orokorra	2/13
Gasteizko Udala	1/13
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa	1/13
Patrono pribatuak	4/13



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	53.900.342 €
Ondare garbia	53.090.905 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	25

Sozietatearen helbidea

Frantzia 24, 01002 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Webgunea

www.artium.org